

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

2020an Vitoria-Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzak emateko deialdi publikoa eta hori arautuko duten berariazko oinarriak

2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2019ko abenduaren 23ko ALHAOn – 147. zk. – argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke – www.vitoria-gasteiz.org –, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten enpresek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2020ko ekainaren 12an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020an produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzak emateko udal programaren deialdi publikoa eta hura arautzeko berariazko oinarriak. Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, denak jakinaren gainean egon daitezen:

1. oinarria. Dirulaguntzen ildoak

Vitoria-Gasteiz marka turismo-helmuga iraunkor gisa sustatzen duten jardueretarako aparteko laguntzak.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Vitoria-Gasteiz marka turismo- eta biltzar-helmuga iraunkor gisa sustatzeko jardueretarako aparteko laguntzak emateko baldintzak arautzea da oinarri hauen xedea; bi laguntza ildo izango dira, eta elkarren arteko lehia baliatuko da banatzeko.

2.1. ildoak: iraunkortasuna sustatzen eta bisitariei produktu turistiko berezia eskaintzen lagunduko duten produktu edo esperientzia turistikoak sortu, hobetu edo garatea.

2.2. ildoak: biltzar-produktu edo -esperientziak sortu eta garatea, edo Vitoria-Gasteizera biltzar-jarduerak erakarri edo halakoak dinamizatzeko ekintzak.

Ez dira diruz lagunduko: kirol, kultura edo aisialdiko jarduera hutsak; galak eta desfileak; lanerako prestakuntza edo etengabeko prestakuntza arautuarekin lotutako jarduerak; ekitaldi akademiko, erlijiozko edo politikoak.

Enpresa onuradunek produktua, zerbitzua edo esperientzia garatzeaz arduratu beharko dute, hori inplementatu, komunikatu edo merkaturatzeko modukoa izan dadin.

3. oinarria. Baliabide ekonomikoak

2020ko udal aurrekontuko 08.10.4331.471.04 partidaren kontura finantzatzeko dira deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak; guztira 40.000,00 izango dira: 20.000,00 euro 2.1 ildorako eta 20.000,00 euro 2.2 ildorako.

Deialdia ebatzi eta dirulaguntzak eman ondoren ildoetako batean erabilgarri dagoen zenbatekoa agortzen ez bada, soberako kopurua beste ildoari gehitu ahalko zaio beharrezkoa izanez gero, eta hala adieraziko da berariaz hautatze eta jarraipen batzordearen aktan.

4. oinarria. Enpresa onuradunen betekizunak

Enpresa pribatuak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, beren izaera juridikoa edozein delarik ere, baldin eta turismoaren sektorean dihardutela egiaztatzen badute helburu sozialaren bidez eta betekizun hauek betetzen badituzte:

- Enpresaren egoitza eta helbide fiskala Gasteizko udalerrian edukitzea.
- Diruz laguntzekoak diren jarduerak Gasteizko udalerrian zuzenean garatzea.
- Enpresek EJZn dagokien epigrafean izena emanda egon behar dute 2020ko martxoaren 14aren aurretik.
- Mikroenpresa izateko bete beharreko betekizunak betetzea martxoaren 14aren aurretik (hamar soldatapeko baino gutxiago, eta 2 milioi eurotik beherako negozio-bolumena edo balantze orokorra, urtean).
- Aurreko betekizunak betetzen ez dituzten enpresekin loturarik ez izatea, edo haiek partaidetza nagusia ez izatea enpresan. Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea.
- Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak egiten dituztenak ere (elkartek, lanbide elkargoak eta abar).

5. oinarria. Diruz lagun daitezkeen gastuak

2020an zehar egiten diren jarduerak jaso ahalko dituzte dirulaguntzak, bi ildo hauetako batean jasotakoarekin bat badatoz:

2.1. ildo: iraunkortasuna sustatzen duten produktu edo esperientzia turistikoak sortu, hobetu edo garatzea.

– Produktu eta esperientzia turistikoak eta naturarekin, gastronomiarekin edo ondarearekin lotutako ibilbide tematikoak sortu, hobetu eta garatzeari dagozkion gastuak, hauek barne: kanpoko aholkularitza zuzena produktuak edo esperientziak garatzeko, jarduera berrien biderragarritasunari buruzko azterlanekin lotutakoak, edo jarduera garatzeko laguntzaileak kontratatzea.

– Turismo promoziorako materiala diseinatu, landu, maketatu eta itzultzeko gastuak; kontzeptu honen barruan onartuko dira diseinu grafikoari dagozkion gastuak, baita eskuorriak, kartelak eta beste komunikazio-elementu batzuk lantzeari dagozkionak ere. Mugikor eta tabletan bidez banatzeko euskarrien diseinua lehenetsiko da, esaterako, PDF formatuan deskargatu daitezkeenak edo web-orri batean ostatatuta daudenak.

– Promozioa eta merkaturatzea online egiteko gastuak: kontzeptu honen barruan onartuko dira web-orriak sortzeari dagozkion gastuak, baita SEO bilatzaileetan kokapena hobetzeko ekintzei, posta elektronikoko bidezko marketinari, blogei eta sare sozialei dagozkienak ere.

– Bisitak egitea errazten duten eta esperientzia turistikoa optimizatzen duten gailu mugikorak edo beste sistema digital batzuk erosi eta erabiltzea.

2.2. ildo: biltzarrak antolatzen dituzten enpresei (biltzarren antolatzaile profesionalei) zuzendutakoa, biltzar-produktu edo -esperientziak sortu eta garatzeko, edo Vitoria-Gasteizera biltzar-jarduerak erakarri edo halakoak dinamizatzeko, edo horiek hobetzeko.

– Biltzar jardunaldi espezifikoetarako hautagaitza-proiektuak garatzea: aurreikusi eta konprometitutako ekitaldietarako hautagaitza diseinatu eta aurkeztea, zein entitatek sustatzen eta antolatzen duen zehaztuta.

– Biltzar-formatu mistoak (online eta aurrez aurre) egiteko proposamen originalak diseinatzea, Vitoria-Gasteiz tokiko edo kanpoko biltzar-sustatzaileen aurrean ezagutarazteko.

– Aurrez aurreko biltzar edo lanbide topaketetan inplementatzekoak diren produktu edo proposamen originalak diseinatzea, topaketa horiek Vitoria-Gasteizen egiteko balio erantsi gisa. Sorkuntza edo esperientziarekin lotutako ekintza/produktuak, komunikazio-kontaktua eta ekitaldiaren izaera jasangarria indartzen dutenak.

– Produktua edo proposamena promozionatu eta zabaltzeko materialari dagozkion gastuak; kontzeptu honen barruan onartuko dira diseinu grafikoari dagozkion gastuak, baita eskuorriak eta kartelak, argazki eta film bankuak eta bideoak lantzeari dagozkionak ere. Mugikor eta tableten bidez banatzeko euskarrien diseinua lehenetsiko da, esaterako, PDF formatuan deskargatu daitezkeenak edo web-orri batean ostatatuta daudenak.

– Promozioa eta merkaturatzea online egiteko gastuak: kontzeptu honen barruan onartuko dira bezeroak, biltzar sustatzaileak eta hirian egin daitezkeen topaketa profesionalak erakartzeko web-orriak sortzeari dagozkionak.

Oro har, honako hauek ez dira diruz lagunduko:

– Deialdi honen 4. oinarrian diruz lagundu daitezkeen gastuen artean berariaz sartuta ez dagoen edo diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten ez dion edozein kontzeptu.

– Adierazitako jarduerari dagozkien zerga edota tasak, gainordainak eta administrazio-zi-gorrrak.

– Onuradunen ohiko funtzionamendu-gastuak.

– Ekipamendu informatikoa erostea.

Ematen diren laguntzak bi ildoetako edozeinetan aurkeztutako proiektuarekin lotuta ondatsun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuei baino ezingo zaizkie egotzi, eta inola ere ez enpresa antolatzailearen inbertsio edo amortizazioei.

6. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek (aldeztatik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean laburpen-iragarkia argitaratuko da). Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, oinarrien deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasita.

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorretan jasotakoa gorabehera —2019ko abenduaren 23ko ALHAOn (147. zenbakia) argitaratu ziren—, enpresa eskatzaileek 11. puntuari zehaztutako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Enpresa bakoitzeko laguntza-eskabide bakarra tramitatuko da.

7. oinarria. Laguntza emateko prozedura

Norgehiagoka baliatuko da laguntza emateko prozedura gisa, eta, hortaz, aurkezten diren proiektuen arteko alderaketa egingo da.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan arautzen diren laguntzak kudeatzea. Hautatze- eta jarraipen-batzorde bat eratu da horretarako, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendariak, Biltzar eta Turismo Zerbitzuko buruak —edo, hura ez badago, Europa biltzar etxeko teknikari taldeko kide batek— eta Turismo Bulegoko teknikari taldeko kide batek osatua.

Batzordeak proposamena egin ondoren, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia dela medio eman edo ukatuko dira enpresak sortzeko laguntzak, horretarako ahalmena Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

Deialdian adierazitako betekizunak bete arren aurrekontu-partida agortzearen ondorioz onuradun suertatu ez diren eskatzaileen zerranda ordenatua erantsi ahalko da ebazpenean.

Onuradun suertatu den enpresaren batek dirulaguntzari uko eginez gero, edo emandako dirulaguntzak itzuli beharrik gertatuz gero justifikazioaren ondorioz, dirulaguntzak eman dituen organoak erabaki ahalko du lehendik dirulaguntza lortu ez duten enpresa eskatzaileei dirulaguntza ematea, zerrendan ageri den hurrenkera aintzat hartuta.

8. oinarria. Ebazteko epea

Gehienez hiru hilabeteko epean ebatziko da prozedura, deialdia ALHAOn argitaratzen dene-tik. Epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, dirulaguntza eskuratzeko eskabidea ezetsizat joko da.

9. oinarria. Balioespen-irizpideak

Aurkeztu diren proiektuak irizpide hauen arabera balioetsiko dira:

2.1. ildo: iraunkortasuna sustatzen duten produktu edo esperientzia turistikoak sortu, ho-betu edo garatzea. 50 puntu.

A. Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa: 25 puntu gehienez.

– Proiektuaren justifikazioa eta koherentzia Vitoria-Gasteizko Udalaren 2018--2020rako turismo gida-planaren lan-ildoekin (0,5 puntu balioetsitako ildo bakoitzeko): 5 puntu gehienez.

– Vitoria-Gasteizko ondare, natura, gastronomia edo historia baliabideak erabili eta ikusa-raztea (puntu bat balioan jarritako baliabide bakoitzeko): 10 puntu gehienez.

– Erabilitako diseinu, sorkuntza edo ikerketa tresnak, propioak zein aholkularitzen bidezkoak (0,5 balioetsitako ildo bakoitzeko): 5 puntu gehienez.

– Online merkaturatzeko eta promozionatzeko erabilitako tresnak (puntu bat tresna bakoitzeko): 5 puntu gehienez.

B. Dagoen turismo eskaintza dibertsifikatzen laguntzen duten alderdiak: 25 puntu gehienez.

– Eskaintzaren segmentazioa, materialak eta edukiak publiko ezberdinei egokitzeko (puntu bat segmentazio aukera bakoitzeko): 5 puntu gehienez.

– Proiektu berritzailea dagoen eskaintzaren barruan, dela osorik (5 puntu) dela alderdi zehazetan (puntu bat bakoitzeko): 5 puntu gehienez.

– Beste enpresa batzuekiko lankidetzak produktua osatzeko (puntu bat bakoitzeko): 10 puntu gehienez.

– Tokian bertan eta eskualdean promozionatu eta merkaturatzeko estrategiak (puntu bat ildo estrategiko eta zuzentzen den publiko bakoitzeko): 5 puntu gehienez.

Dirulaguntza jaso ahal izateko, aurkeztutako proiektuek gutxienez 25 puntu lortu beharko dute aurreko irizpideen arabera.

2.2. ildo: biltzarrak antolatzen dituzten enpresei (biltzarren antolatzaile profesionali) zuzen-dutakoa, biltzar-produktu edo -esperientziak sortu eta garatzeko, edo Gasteizera biltzar-jarduerak erakarri edo halakoak dinamizatzeko, edo horiek hobetzeko: 50 puntu gehienez.

A. Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa: 25 puntu gehienez.

– Proiektuaren justifikazioa eta koherentzia Vitoria-Gasteizko Udalaren 2018-2020rako tu-rismo gida-planaren lan-ildoekin (0,5 puntu balioetsitako ildo bakoitzeko): 5 puntu gehienez.

– Vitoria-Gasteizko biltzar, ondare, enpresa, kultura, natura, gastronomia edo historia ba-liabideak erabili eta ikusaraztea (puntu bat balioan jarritako baliabide bakoitzeko): 10 puntu gehienez.

– Erabilitako diseinu, sorkuntza edo ikerketa tresnak, propioak zein aholkularitzen bidezkoak (0,5 puntu tresna bakoitzeko): 5 puntu gehienez.

– Merkaturatzeko eta promozionatzeko erabilitako tresnak, materialak edo online (puntu bat tresna bakoitzeko): 5 puntu gehienez.

B. Dagoen biltzar eskaintza dibertsifikatzen laguntzen duten alderdiak: 25 puntu gehienez.

– Proiektu berritzailea dagoen eskaintzaren barruan, dela osorik (5 puntu) dela alderdi ezberdinetan (puntu bat bakoitzeko): 5 puntu gehienez.

– Beste enpresa batzuekiko lankidetzak produktua osatzeko (puntu bat lankidetzako bakoitzeko): 10 puntu gehienez.

– Tokian bertan, eskualdean, estatuan edo nazioartean promozionatu eta merkaturatzeko estrategiak (puntu bat estrategia bakoitzeko): 10 puntu gehienez.

Dirulaguntza jaso ahal izateko, aurkeztutako proiektuek gutxienez 25 puntu lortu beharko dute aurreko irizpideen arabera.

10. oinarria. Laguntzen zenbatekoa eta gehieneko dirulaguntza

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, eta, hortaz, aurkeztu diren proiektuen arteko alderaketa egingo da, 9. oinarrian ezarritako balioespen-irizpideei jarraituz.

Onartutako gastu eta inbertsioen ehuneko 50ekoa izango da dirulaguntzaren portzentajea, baldin badagokie. Edonola ere, aipatutako ehunekoak aplikatuz lor daitekeen gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan 5.000,00 eurotik gorakoa 2.1 ildoan, eta 10.000,00 eurotik gorakoa 2.2 ildoan.

Gutzira lortutako puntuazioaren arabera ezartzen den hurrenkera horri jarraiki emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte. Baldin eta erabilgarri dagoen saldoa ez bada aski kreditua agortzen duen dirulaguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua emango zaio horri.

Deialdia ebatzi eta dirulaguntzak eman ondoren erabilgarri dagoen zenbatekoa agortzen ez bada, sortutako soberakina onuradunen dirulaguntza ehuneko 75eraino handitzeko erabil daiteke, hainbanaketaren bidez, baldin eta deialdian ezarritako mugetako bat ere gainditzen ez bada.

11. oinarria. Nahitaezko agiriak

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie oinarri hauen bidez araututako dirulaguntza-eskabideei:

– Turismo edo biltzar promoziorako proiektuaren azalpen-txosten xehea.

– Enpresaren deskribapen laburra.

– Ekonomi jardueren gaineko zergan garatzen duten turismo jarduerari dagokion epigrafean alta emanda egotearen inprimakia.

– Eskabide-orria eta zinpeko aitortpena: I. eranskina, www.vitoria-gasteiz.org udalaren web-orrian eskuragarri dagoena.

– Pertsona fisikoen kasuan: nortasun-agiriaren fotokopia.

– Pertsona juridikoen kasuan:

IFKren kopia.

Enpresa eratzeko eskrituren kopia.

Ordezkatze-ahalmenen kopia.

Ordezkatze-ahalmena duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia.

– Soldatapeko langilerik izanez gero, langileen zerrenda izenduna, 2020ko otsailekoa.

– Enpresak soldatapeko langilerik ez badu, 2020ko otsaileko autonomoen ordainketaren ordainagiria.

Vitoria-Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak betetzeari dagokionean, ofizioz begiratuko da pertsona edo enpresa eskatzailea egunean dagoen.

Eskabidea aurkezteak Vitoria-Gasteizko Udalari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean eskatzeko baimena ematea dakar berekin (l. eranskina). Hala ere, enpresa eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimen hori. Horrela bada, Arabako Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak ordainduak dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Enpresa eskatzaileak ez badu esleitua Gizarte Segurantzaren sistemako inongo erregimeneko kotizazio-konturik, bertako bazkide guztiek egon beharko dute egunean Gizarte Segurantzaren.

12. oinarria. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea

Bi zatitan ordainduko da dirulaguntza: ehuneko 80, justifikazioa aurkeztu baino lehen; gainerako ehuneko 20a, alderdi hauek egiaztatu ondoren: egindako gastuak eta jarduerak diruz lagundutako ekintzekin bat datozela, justifikazioaren alderdi guztiak zuzenak direla eta dirulaguntzaren xedea bete dela.

Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da dirulaguntza, onuradunak eskabidean horretarako adierazten duen kontu korrontean.

Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona edo entitate onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu. Ezin izango da dirulaguntza ordaindu harik eta pertsona edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte; orobat, ez zaio ordainduko dirua itzultzeko prozedura baten ondorioz zordun bada.

Ordaintzeko obligazioa onartzeko, entitate onuradunak agiri bidez justifikatu beharko du ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren xedea bete direla; horretarako epea 2021eko urtarrilaren 31n amaituko da. Udalaren web-orrian – www.vitoria-gasteiz.org – eskura daitezke justifikatzeko formularioak (eranskinak).

Justifikatzeko emandako epea amaitu aurretik benetan ordaindutakoa joko da egindako gastutzat.

Nolanahi ere, egindako gastuak egiaztatzeko fakturak gehienez 2020ko abenduaren 31n egindakoak izango dira.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira dirulaguntzak justifikatzeko:

a) Egindako jarduerari eta lortutako emaitzei buruzko txostena.

b) Txosten ekonomikoa, hauek barne:

– Jardueretako bakoitzaren gastuen zerrenda, hauek zehaztuta: enpresa hornitzailea (enpresaren IFZ eta izen soziala), faktura egiteko data, kontzeptua eta zenbatekoa, eta ordaintzeko data.

– Jatorrizko fakturak, aurreko atalean zehazten direnekin bat datozenak.

– Ordaindu izana egiaztatzeko agiriak.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jaso diren laguntzei buruzko erantzukizunpeko aitortpena.

Ez da onartuko enpresa eskatzaileak hornitzaileari faktura ordaindu diola argi eta garbi gera dadin nahikoa daturik jasotzen ez duen banku-egiaztagiririk.

Jarduera burutu eta justifikatzeko epea bukatzen delarik egindako gastuen zati bat baino ordaindu ez bada, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da, kobratzeko eskubidea galtzeari dagokionez.

13. oinarria. Enpresa onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresek betebeharrak hauek izango dituzte:

– Udalaren egiaztatze-ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoen mende ere.

– Udal dirulaguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako laguntza edo dirulaguntzarik eskatu edota jasoz gero, Udalari jakinaraztea.

– Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Udalari jakinaraztea.

– Laguntza eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren eskura jartzea.

– Laguntza ildo honen kargura finantzatzen diren jarduerak leku nabarmenean agerrarazi beharko dute Vitoria-Gasteizko Udalaren babesletza. Horretarako, Biltzar eta Turismo Zerbitzuarekin koordinatu beharko dituzte jendaurreko komunikazio eta aurkezpen ekintza guztiak.

14. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateraezintasuna

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarri izango dira bestelako laguntzekin, baldin eta diruz lagundutako kontzeptuaren kostua gainditzen ez bada. Ondorio horietarako, diruz lagundutako jardueraren kostutzat joko dira aurkeztu, onetsi eta justifikatutako gastuak.

Gain-finantzaketarik izanez gero, soberakinari dagokion zenbatekoa gutxituko zaio laguntzari.

15. oinarria. Akatsak zuzentzea

Eskabideari ez bazaizkio deialdian galdatutako agiriak eransten, hamar eguneko epea emango zaie eskatzaileei falta zaizkien agiriak aurkezteko –Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua ildotik –, eta halaber ohartaraziko hala egin ezean eskabidea bertan behera utzitakotzat joko dela.

16. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Deialdi hau dela-eta egiten diren jarduketak gauzatzean, une oro beteko da datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen legerian xedatutakoa.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 15ean

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI

I. eranskina: Laguntza-eskabidearen eta zinpeko aitorenaren inprimakia

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/90/07/89007.pdf>